

4. ZIRKULARRA: BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA FINKATZEKO PROZESUAK

Alkate jn./and.

Aurreko Zirkularren jarraipen gisa, honako hau jakinarazten dizuegu:

1.- OPOSIZIO-LEHIAKETAREN OINARRIEN EREDUAK BIDALTZEA

Azaroaren 11ko azken zirkularrean adierazitakoaren arabera, honekin batera doakizue **lehiaketa-oposizio prozesuetarako oinarrien eredua**, behar duten erakundeentzat erreferentzia edo laguntza izan daitezen, udal-autonomiaren esparruan.

2.- OINARRIAK BETETZEARI BURUZKO ZALANTZAK: oinarriak@eudel.eus

Aurreko zirkularretan azaldutakoaren arabera, kontsultak ebazteko bidea honako hau da: oinarriak@eudel.eus

Kontsulta instituzionalei baino ez zaie erantzungo. Horretarako, kontsulta horiek egiten dituen pertsona identifikatu beharko da, udalean duen kargua adierazita, baita harremanetarako zuzeneko telefonoa ere, solaskide gisa berak izendatutako pertsona dela berresteko.

3.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN TXOSTEN JURIDIKOA BIDALTZEA

Honekin batera, **Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko eta Hura Kudeatzeko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen esparruan oinarri-ereduan erabilitako irizpideei buruzko txostenaren euskarazko bertsioa** bidaltzen da. Bizkaiko Foru Aldundiak egin zuen txosten hori, gaztelaniaz baino ez zen bidali aurreko zirkularrean.

CIRCULAR Nº 4: PROCESOS DE CONSOLIDACIÓN TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

Sr. Alcalde, Sr. Alcaldesa

Como continuación a las Circulares anteriores, les informamos de lo siguiente:

1.- REMISIÓN MODELOS DE BASES DE CONCURSO-OPOSICIÓN

Conforme se informó en la última Circular de fecha 11 de noviembre, se adjuntan **Modelo de Bases para los procesos de Concurso-Oposición**, con la finalidad de que puedan servir de referencia o ayuda a las instituciones que puedan precisarlos, todo ello en el marco de la autonomía municipal.

2.- DUDAS REFERIDAS A LA CUMPLIMENTACIÓN DE LAS BASES: oinarriak@eudel.eus

Conforme lo informado en Circulares anteriores, el canal habilitado para la resolución de consultas es: oinarriak@eudel.eus

Únicamente serán atendidas las consultas institucionales, para lo cual deberá identificarse la persona que las realiza, indicando el cargo que ostenta en el Ayuntamiento, así como teléfono directo de contacto, a fin de corroborar que es la persona designada por el mismo como interlocutor.

3.- REMISIÓN INFORME JURÍDICO DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA VERSION EUSKERA

Adjunto con la presente, se hace llegar la versión en euskera del **"Informe relativo a los criterios utilizados en el modelo de bases en el marco de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público y su gestión"**, elaborado por la Diputación Foral de Bizkaia que ya había sido remitido en castellano en la Circular anterior.

Hori guztia jakinarazten da, dagozkion ondorioak izan
ditzan, Bilbon, 2022ko azaroaren 21an.

Lo cual se comunica a los efectos oportunos en
Bilbao, a 21 de noviembre de 2022.